

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URIZAHARREKO UDALA

Kirol, kultura eta gizarte ekintza arloko dirulaguntzak, 2016an egindako jardueretarako

Urizarreko Udalak 2016ko irailaren 15ean egindako ohiko bilkuran, kirolaren, kulturaren eta gizarte ekintzaren arloan 2016an egindako jardueretarako dirulaguntza deialdia eta hura arautzen duten oinarri arauak onartu zituen.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 52.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, argitaratu egiten dira, denek jakin ditzaten.

Kirol, kultura eta gizarte ekintza arloan 2016an egindako jardueretarako dirulaguntzak emateko oinarriak

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea, norgehiagoka bidez, gizarte, kultura eta kirolaren arloan ekimenak, programak eta jarduerak gauzatzen laguntzeko udalerrian, betiere udalaren jardura osatuz, eta betiere honela gauzatzen badira:

2016ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte gauzatutako programa eta jarduerak.

Deialdi hau oinarri hauek arautuko dute, bai eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek, dirulaguntzenak, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren, dirulaguntzenaren, erregelamendua onartzen duenak, eta gainerako eta aplikagarri den araudi osagarriak ere.

Deialdi honetako oinarriek arautzen dituzten dirulaguntzen kudeaketa printzipio hauen arabera egingo da: publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza; bai eta beste hauen arabera ere: eraginkortasuna zehaztutako helburuak betetzean eta efizientzia baliabide publikoen esleipenean eta erabileran.

1. artikulua. Deialdiaren xedea eta helburua

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen xedea da sustatzea irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeek Urizarreko udalerrian 2016. urtean gauzatzen dituzten proiektu eta jarduerak, honako arlo hauetakoak:

Gizartea eta komunitatea sustatzeko jarduketak, arlo hauetan:

- Emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna.
- Gizarteratzea eta/edo kulturartekotasuna.
- Hirugarren adinekoak.
- Umeentzako eta/edo gazteentzako hezkuntza, aisia eta astialdiko jarduketak.
- Osasun prebentzioa.
- Etengabeko prestakuntza eta boluntarioak sustatzea.
- Sentsibilizazioaren ingurukoak: ingurumena...

2. Kultura sustatzeko jarduketak:

- Arte prestakuntza eta sormena.
- Herritarrek parte hartzen duten kultura jarduerak, salbu herriaren zaindariaren jaiak eta herri bazkariak.

- Kultura zabalkundea: hitzaldiak, ikastaro monografikoak, erakusketak...
- Kultura txangoak: museoetako, erakusketetako, natura parkeetako eta antzekoetako sarrierak.

3. Kirola sustatzeko jarduketak:

- Kirol jarduerak.
- Kirol ekitaldiak antolatzea eta egitea.
- Oinarrizko kirola sustatzea.

Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

- Otorduek, egunsariak, joan-etorriak eta erabilera pertsonaleko bestelako materialek eragindako gastu pertsonalak.
- Elkartearen barru funtzionamenduaren eta kudeaketaren gastu materialak. Ezta elkartearen web orria mantentzeko gastuak ere.
- Udalak eskaintzen dituen proiektuen paraleloak, nola eta ez diren udalak eskainitakoen osagarriak.
- Federazio gastuak.
- Kirol arloko elkarte eta talde legez eratuek material ez suntsigarria eta/edo ekipoak erosteak eragindako gastuak.

2. artikulua. Pertsona eta erakunde onuradunak

I. Pertsona eta erakunde hauek izan daitezke dirulaguntzen onuradun:

a) Irabazteko xederik gabeko kirol klubak, elkartek eta erakundeak, behar bezala erregistratuta badaude ekainaren 22ko 7/2007 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteenak, xedatutakoaren arabera, eta beren programak edo jarduerak udalaren eremuan bakarrik gauzatzen badira.

II. Onuradunen betebeharrak:

1. 2016an, udalerrian, gizarte, kultura eta/edo kirol arloko sustapen jarduketak egin izana.
2. Haien jardun esparruak eragina izatea Urizaharreko udalerrian.
3. Elkartearen egoitza udalerrian egotea.
4. Ezin izango dira dirulaguntzen onuradun izan azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotzen diren egoeraren batean dauden pertsona eta elkartek.

3. artikulua. Aurrekontuko zuzkidura

Hau da 2016rako aurrekontu zuzkidura:

Bi mila bederatziehun eta berrogeita hamar (2.950,00) euro, 334.481.000 aurrekontu partidaren kontura.

Dirulaguntzak borondatezkoak dira, eta aldeztatik jaso izanak ez du berriro jasotzeko eskubiderik sortzen.

Udalaren dirulaguntza bateragarria da eskatzaileek lortzen dituzten beste guztiekin. Dena den, udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezingo du onuradunak garatu beharreko jardueraren edo programaren kostua gainditu, dirulaguntza hori bakarrik hartuta edo beste erakunde publiko zein pribatu batzuen dirulaguntzekin batera.

4. artikulua. Zenbatekoa

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, honako hau hartuko da oinarritzat: egindako jarduera edo programaren gastuaren eta erakunde onuradunak xede bererako beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik eskuratutako dirulaguntzen arteko kenketaren emaitza den defizita.

Haren zenbatekoa artikulua honetan xedatzen diren balorazio irizpideen arabera zehaztuko da.

Udalaren dirulaguntzak ez du inondik ere gaindituko jarduera guztiek onuradunari eragin dioten urteko defizita, ez eta onuraduneko seiehun (600,00) euro ere.

Hala ere, eskaeren kopuruak eta eskatutako dirulaguntzen guztirako zenbatekoak ekarriz gero dirulaguntzen gehieneko ehunekoak murriztu beharra aurrekontu partidako zuzkitutako kredituari egokitzeko, murrizketa proportzioan ezarriko zaie jarduera guztiei.

Balorazio irizpideak:

a) Aurkeztutako programak. Gehienez, 15 puntu:

Gauzatutako jarduera kopurua, puntu bat jarduerako

b) Bazkide kopurua (puntu bat 15 bazkideko): 6 puntu, gehienez ere.

c) Puntu bat elkarteak edo entitateak egin duen urte bakoitzeko: 15 puntu, gehienez ere.

g) Jarduerak edo programak euskararen aldeko eragina edo trataera izatea. Gehienez ere: 2 puntu.

h) Genero berdintasunaren ikuspegia txertatzea jarduera gauzatzean. Gehienez ere: 2 puntu.

Balorazioaren ondorioz lortutako puntuak bat etorriko dira aplikazio portzentaje honekin:

ESKURATUTAKO PUNTU KOPURUA	DEFIZITAREN ZENBATEKOARI APLIKATU BEHARREKO DIRULAGUNTZAREN EHUNEKOA
1 eta 10 puntu bitartean	1etik 25era
11 eta 20 puntu bitartean	26tik 50era
21 eta 30 puntu bitartean	51tik 75era
31 eta 40 puntu bitartean	76tik 100era

5. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

Eskatzaileek ondoren zerrendatzen diren agiriak aurkeztu behar dituzte:

Agiri orokorrak:

– Eskabidea eredu ofizialean (I. eranskina).

– Justifikazio kontu sinplifikatua (II. eranskina)

– Diruz lagundu daitezkeen fakturen fotokopia konpultsatua.

– Eskatzailearen (elkartearen ordezkaria) NANaren/AIZren fotokopia eta elkartearen IFK.

– Zinpeko aitortpena: xede bererako beste administrazio, erakunde edo entitate publikoren baten dirulaguntzarik edo laguntzarik eskatu eta/edo jaso den ala ez adierazita. Beste dirulaguntzaren bat eskatu/edo lortu bada, jasota izan zein ez, zenbatekoa adierazi beharko da, bai eta zein erakunde publiko edo pribatuk eman duen ere, egoki bada; halaber, datuak benetakoak diren egiaztatzeko agiria aurkeztu beharko da (III. eranskina: xede bererako bestelako diru sarrerarik eskatu edo lortu ez bada. IV. eranskina: xede bererako bestelako diru sarrerak eskatu eta/edo lortu badira).

- Ziurtagiria, Urizaharreko Udalarekiko zerga betebeharrak egunean edukitzekoa (Udalak aurkeztuko du).
- Estatutuen fotokopia eta dagokion elkarte eta erakundeen erregistroan legez eratu eta inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.
- Ziurtagiria, eskatzaileak Gizarte Segurantzako betebeharrak eta zerga betebeharrak egunean eta beteta dituelakoa; halakoaren faltan, zinpeko adierazpena, betebeharrak fiskal eta/edo tributuzkoetan egunean dagoelakoa.
- Gastu eta diru sarreraren balantzea, xehatuta diruz lagundutako aldiaren egindako jarduerak bakoitzeko.
- Langile gastuak badaude edo erakunde onuradunek PFEZaren atxikipena duten fakturak aurkezten badituzte, 190 ereduaren kopia bidaliz egiaztatu beharko dute atxikipenak ordaindu dizkiotela Arabako Foru Aldundiari.
- Banketxeak emandako ziurtagiria, kontu zenbakia eta titularra jakinarazten dituenak, elkarrekin izenean, nola eta udalean aurrez jasota ez dagoen.

6. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 2017ko urtarrilaren 15ean amaituko da, eta epe horretatik kanpo ez da eskabiderik izapidetuko.

Dokumentazioa Urizaharreko Udaleko erregistro orokorrean aurkeztu behar da, edo Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearen Legearen 38. artikuluan xedatutako moduetakoren batean (lege hori 11/2007 Legeak, herritarren zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoari buruzkoak, aldatu zuen).

Eskabideak oinarri hauetan jasotako baldintza guztiak betetzen ez baditu, erakunde edo klub interesdunari eskatuko zaio zuzen dezala hamar egun balioduneko epean, bat etorritik azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 71.1 artikuluan xedatutakoarekin.

7. artikulua. Emateko eta ebazteko prozedura

Eskabideak ebaluatu ondoren, behin-behineko ebazpen proposamena egingo da, eta alka-teak irizpena emango du. Ondoren, interesdunari jakinaraziko zaie, eta 10 egun balioduneko epea emango, egoki jotzen dutena alegatzeko.

Behin alegazioak ebatzirik, alkateak dirulaguntzak ebatziko ditu, eta interesdunari jakinaraziko zaie behin betiko ebazpena.

Eskabideei buruz ebazpena emateko hilabete izango da, eskabideak aurkezteko emandako azken egunetik kontatzen hasita (6. artikuluan dago ezarrita epe hori). Epe hori berriazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, eskabide ezetsi egin dela joko da.

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du, bertan azalduko da haren aurka zer errekurtso jar daitezkeen, eta jakinaraziko da 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 59. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Emandako dirulaguntzak udalaren iragarki taulan eta web orrian argitaratuko dira, pertsona orok jakin dezan, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, xedatutakoarekin bat etorritik.

8. artikulua. Onuradunen betebeharrak

– Dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean baldintzak eta betekizunak betetzen direla justifikatzea, baita dirulaguntza emateko oinarrian izan den jarduerak egin dela eta helburua bete dela ere.

– Dirulaguntza ematen duen organoak egiten dituen egiaztapen jarduketa guztiak onartzea, bai eta kontrol organo eskudunek, estatukoek zein erkidegokoek, finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzeko egiten dituztenak ere, eskatzen zaien informazio eta agiri guztiak emanez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutakoak barne.

– Laguntza ematen duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk lortu izana.

– Egiaztatzea bete dituela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

– Pertsona juridikoa izanez gero, kontabilitate liburuak, egindako erregistroak eta merkataritzako gainerako agiriak behar bezala auditatuta edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatzekoa den merkataritzako eta sektoreko legerian ezarritakoaren arabera.

– Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiria gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketan xede izan baitaitezke.

– Jardueraren publizitatean adierazpen hau azaldu beharko da: “Urizaharreko Udalarekiko lankidetzan”; orobat, udalaren armarria agertu beharko da hurrengo ekitaldiko jardueretan.

– Dirulaguntza ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Urizaharreko Udalak izapidetan jarritako itzulketa edo zehapen prozesu oro bukatuta izatea.

9. artikulua. Dirulaguntzak ordaintzea

Behin interesatuei jakinarazita behin betiko ebazpena, 30 eguneko epean egingo da ordaintzea.

Onuradunek oinarri hauetan jasotako betebeharrak eta zehaztapenak ez betetzeak dirulaguntza baliogabetzea ekar dezake, eta emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura aplikatuko da, Urizaharreko Udalaren dirulaguntzen ordenantzan araututakoaren arabera.

10. artikulua. Araudi aplikagarria

Oinarri hauetan xedatu ez denerako, honako hauek hartuko dira kontuan: Toki araubidearen araudia; Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legea (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazketan); azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; dirulaguntzen udal ordenantza; eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, zuzenean, Gasteizko epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, aukerako berraztertze errekurtsua, deialdia onartu duen organoari berari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

11. artikulua. Datu pertsonalen babesa

Bat etorri abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalen babesekoak, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, erakunde publikoen jabetzako datu pertsonalen fitxategienak eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzearenak, xedatutakoarekin, deialdi hau izapidetzeko bildutako datu pertsonalak Urizaharreko Udalaren 3 zenbakiko fitxategian jasoko dira, zeina sartuta baitago Urizaharreko Udalaren datu pertsonalen fitxategien sorrera eta aldaketa arauan.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko Urizaharreko Udalera jo behar da.

Era berean, deialdi honetara aurkeztu diren pertsonak baimena ematen diote Urizaharreko Udalari egiazta ditzan beste organismo publiko batzuetan aurkeztutako agirietan emandako datuak.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Urizaharra, 2016ko irailaren 20a

Alkatea

JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO

I. eranskina

Urizarreko (Araba) irabazteko xederik gabeko kirol klub, elkarte eta erakundeek 2016an gauzatutako kirol, kultura eta gizarte ekintza arloko gastuetarako dirulaguntza eskaera
jaunak/andreak,
 NAN zenbakia.....duenak,.....
 kirol klub/elkarte/erakundearen lehendakaria den aldetik (IFK:.....,
 herria:....., helbidea:....., posta kodea:....., Araba; telefono
 zenbakia:.....,
 eta helbide elektronikoa:.....) honako hau

ADIERAZTEN DU

Urizarreko (Araba) irabazteko xederik gabeko kirol klub, elkarte eta erakundeek 2016an gauzatutako kirol, kultura eta gizarte ekintza arloko gastuetarako dirulaguntzen deialdia ikusita, eta bertan jasotako oinarrien berri izanik, honako hau

Eskatzen du

Gastuok finantzatzeko dirulaguntza eman diezaiotela eta, horretarako, deialdiaren oinarrien 5. puntuan aipatutako agiriak aurkezten ditu. Kostua, guztira,euro izango da, eta eskatutako agiriak ere aurkezten ditu, zeinak egiazkoak direla ziurtatzen baitut:

Aurkeztu dituen agiriak (jarri x marka)

- 1. Justifikazio kontu erraztua (II. eranskina)
- 2. Diruz lagundu ahal diren fakturen fotokopia
- 3. Eskatzailearen NANaren/AIZren fotokopia eta elkartearen IFK.
- 4. Zinpeko aitortpena, xede bererako bestelako dirulaguntzarik edo laguntzarik eskatu edo jaso ez dela adierazten duena (III. eranskina)
- 5. Zinpeko aitortpena, xede bererako beste dirulaguntza edo laguntzaren bat eskatu eta/edo jaso dela adierazten duena (IV. eranskina)
- 6. Estatutuen fotokopia eta dagokion elkarte eta erakundearen erregistroan legez eratu eta inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiri eguneratua.
- 7. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta zerga betebeharrak egunean dituela frogatzen duen ziurtagiria. Halakorik ezean, zinpeko aitortpen bat aurkeztuko da adieraziz entitate egunean dagoela zerga zorren ordainketan.
- 8. Gastu eta diru sarreraren balantzea, xehatuta diruz lagundutako aldiaren egindako jarduera bakoitzeko (II. eranskinean jaso da)
- 9. Langile gastuak badaude edo erakunde onuradunek PFEZaren atxikipena duten fakturak aurkezten badituzte, 190 ereduaren kopia bidalitzeko egiaztatu beharko dute atxikipenak ordaindu dizkiotela Arabako Foru Aldundiari.
- 10. Kontuaren titularraren banku ziurtagiria

Horretarako:

Zinpean deklaritzen dut ordezkatzeko dudana erakundea ez dagoela azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 13. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan ezarritako egoeraren batean.

....., 2016ko(a) rena

Izpta.:

(Sinadura eta erakundearen zigilua)

II. eranskina

Justifikazio kontu erraztua

..... jaunak/andreak, NAN zenbakia
 duenak,
 elkartearen lehendakari den aldetik (IFK:), justifikazio
 kontu erraztu hau izenpetzen du, zeina 2016. urtean gauzatutako jarduera hauei baitagokie:

- 1. jarduera. Izena:
; azalpena:

- 2. jarduera. Izena:; azalpena:

- 3. jarduera. Izena:; azalpena:

(Dirulaguntzetara aurkeztuko den jarduera bakoitzeko, diru sarreraren eta gastuen zerrenda bereizia eman behar da)

..... jarduera. Izena:

Egindako jarduera finantzatu duten diru sarrera guztien zerrenda:

ERAKUNDEA	ZENBATEKOA

Egindako jardueraren gastuen zerrenda:

HORNITZAILEA	IFZ	FAKTURA ZK.	FAKTURA DATA	KONTZEPTUA	ORDAINKETA DATA	ZENBATEKOA
Guztira						

....., 2016ko-a rena

(Sinadura eta erakundearen zigilua)

III. eranskina

(Xede bererako bestelako diru sarrerarik eskatu edo lortu EZ bada)

..... jaunak/andreak, NAN zenbakia..... duenak, ..
..... elkartearen lehendakari den aldetik (IFK:), honako
hau deklaritzen du zinpean:

Ordezkatzen dudan erakundeak ez du inolako diru sarrera publikorik ez eskatu ez jaso Uri-
zaharreko Udalaren dirulaguntzetara aurkeztu dituen 2016an kirol, kultura eta gizarte ekintza
arloetan egindako jardueren gastuak finantzatzeko.

Urizarreko Udalaren dirulaguntzetara aurkeztutako jardueretarako dirulaguntzarik jasoz
gero, horren berri emango zaio udalari, idatziz eta hilabeteko epean, dirulaguntza ematen
denetik aurrera.

....., 2016ko-a rena
Izpta:.....

(Sinadura eta erakundearen zigilua)

IV. eranskina

(Xede bererako bestelako diru sarrerak eskatu eta/edo lortu badira)

..... jaunak/andreak, NAN zenbakia duenak,elkartearen lehendakari den aldetik (IFK:), honako hau deklaritzen du zinpean:

Ordezkatzen dudan erakundeak diru sarrera hauek (erakunde publikoenak zein pribatuenak) eskatu eta/edo lortu dituela 2016an kirol, kultura eta gizarte ekintza arloetan egindako gastuak finantzatzeko:

ERAKUNDEA	KONTZEPTUA	ESKATUTAKO ZENBATEKOA	LORTUTAKO ZENBATEKOA

....., 2016ko-(a) rena
Izpta:.....

(Sinadura eta erakundearen zigilua)